

## *Etxean kontu-kantari 1*

### *Txalopin txalo*

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkarteak.

Kanta bat da hau. Txaloak eta keinuak erantsi daitezke kantatzen ari garen bitartean.

Txalopin txalo,  
txalo eta txalo,  
katutxoa mizpira  
gainean dago.

Badago bego  
bego badago,  
zapatatxo berriei  
begira dago.

### *Perutxo txikiaren ipuina*

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkarteak.

Perutxok ia beti kasu egiten zien gurasoei, oso txintxoa zen. Baina egun batean, konturatugabe belardi handian sartu zen eta...

## Lehenengotxu hori

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkartearen.

Lehenengotxu hori  
punta-behatz hori,  
beste guztien aldean  
trokotza duk hori.  
Lara-la-lara...

Bigarrentxu hori,  
punta-behatz hori,  
beste guztien aldean  
bizkorra duk hori.  
Lara-la-lara...

Hirugarren hori,  
punta-behatz hori,  
beste guztien aldean  
luzea duk hori.  
Lara-la-lara...

Laugarrentxu hori,  
punta-behatz hori,  
beste guztien aldean  
lerdoa duk hori.  
Lara-la-lara...

Bosgarrentxu hori,  
punta-behatz hori,  
beste guztien aldean  
txatxarra duk hori.  
Lara-la-lara...

Atzamar bakoitza besteengatik bereziko da berari kantatzen zaionean eta aldi berean, bere dantza egingo du atzamar horrek, jira eta bira, kantuaren erritmoan. Lara-la-lara... bitarte guztietan, txaloak emango dituzte. Autoan zoaztelarik kantari joateko...

## Maria Goikoa

Lertxundi, A. eta Olariaga, A. (2011). *Maria Goikoak batbirulau!*. Alberdania; Erein; Igela (Klis-Klasikoak).

- Maria Goikoa...!
- Zer duzu behekoa?
- Iturrira al zatoz?
  - Ez!
- Zergatik bada?
- Senarra etorri.
- Senarra etorri, eta zer ekarri?
  - Zapata eta galtzerdi.
  - Eta zer kolore?
- Txuri, gorri eta kikirriki!

Maria Behekoa, egunero bezala, iturrira abiatzen da; deitu dio Maria Goikoari baina hura ohean dago oraindik... Antzezpena prestatu, bisitei erakusteko? Ondo pasatzeko?

Aho-jolas bezala erabili:

*Nolakoa da hori? – Txuri, gorri eta kikirriki!*

Aurkezpena pentsatu... Antzezteko elementu txiki batzuk inkorporatu (Bata, kapela, aulki bat...)

## *Zubiri zubiri*

Zubiri zubiri  
nongori nongo,  
nongo alkate zerade?  
Frantziako errege baten  
seme alabak gerade.  
Hurren hurrena zulo honetatik  
pasatzen dena  
hemen geldituko dela,  
hemen geldituko dela.

Parkean jolasean aritzeko. Mendian, egun-pasa batean...